

Txina eta India tigrea babestu nahian

Mundu osoan 5.000-tik 7.000ra tigre inguru daude eta hauetatik 3.750 Indian bizi dira. Txina aldiz, tigre-produktuen kontsumitzaile handiena da, produktu hauetako gehienak, medikuntza tradizionalan erabiltzen direlarik. Baina Txinan tigrerik ez dagoenez, Indian lan egiten duten isilpeko ehiztarien bidez hornitzen dira. Ondorioz, Indiako tigre-populazioa asko gutxiagotu da. Egoera horren aurrean India oso kezkatu azaldu da eta tigrearen trafikoari aurre egiteko, bi herrialdeek indarrak batu

Txinan tigrerik ez dagoenez, Indian lan egiten duten isilpeko ehiztarien bidez hornitzen dira.




egin dituzte. Martxoaren hasieran Kamal Nath, Indiako ingurugiro-ministroak eta Song Jian, Txinako ingurugiro-, zientzi eta teknologiko ministroak, akordio bat sinatu zuten tigreen isilpeko ehizari, kontrabandoari eta trafikoari aurre egiteko. Mahendra Vyas, Delhiko Gorte Goreneko abokatuaren ustez, tigrea atentzio-gune bihurtzea eta jendea arazoaz ohartaraztea da akordio politiko horren helburua. Ekialde Urruneko merkatu beltzean 60.000 dolar balio lezake tigre batek. Gaur egun, oraindik ere, tigre-produktuen eskaera handia da eta horrek, isilpeko trafikoa eragiten du.

Pakearen beldur


Gerrak arriskua uxarazi egiten zuen eta orain, armadak erretiratu ostean, Itsaso Gorriera itzuliko den pake-giroak uste

baino kalte handiagoa eragingo ei dio inguruneari. Arriskuari aurre egin nahian, otsailaren hasieran Israelgo, Jordaniako eta Egiptoko ikerlari eta biologoak elkartu egin ziren, Itsaso Gorrirako eta zehazki haren ekialdeko Aqaba golkorako babes-mekanismoak atontzera. Biler horretan zabalduak lankidetzaz-egitasmoan Saudi Arabiako biologoek ere parte hartuko dutela espero da. Gerra eta pakea izan zuten aztergai. Gerraren ostean, izan ere, turismoak erakarriko duen jendeholdeak arriskuan jar lezake eskualdeko oreka ekologikoa, neurri gabeko hazkundeak eta kontrolaezinak diren iharduera suntsitzaileak direla medio. Gerrak lortu ez duena pakeak ekarriko ote duen galdezka hasiak dira. Aqaba Golkoan daude Itsaso Gorriko koralezko arreziferik handienak eta ikusgarrienak. Azken urteotan gerraren ondorioak pairatu behar izan baditu ere, faunak eta florak uste baino hobeto erantzun omen du. Murgilarien axolagabekeriaren eta turismoak sorraraziko duen poluzioaren beldur dira biologoak. Lehenari dagokionez, iaz 200.000 urpekari aritu omen zen eskualde horretan, horietatik % 95 babestuta dauden koralezko arrezifetan. Esperientziarik ez duen murgilariak berebiziko hondamendia eragin dezake koral hauskorren



Itsaso Gorriko koralezko arrezifeen etorkizuna jokoan dago.

artean higitzerakoan. Jakina da, bestalde, abenturaren oroigarri gisa oso preziatuak direla koral zatiak, merkatu oron erraz saltzen den altxorra izanik. Kostaldean zehar ezarri diren turismo-zerbitzuek jatorrizko fauna eta landaredia arriskuan jarri dute. Algak desagertarazten duen poluzioak koralak eramango ditu berarekin, fotosintesia behar bezala egitea oztopatzen baitu. Itsaso Gorriaren ura, hortaz, bere bete-beharrei aurre egiteko gai ez dela izango eta jatorrizko biztanleak hiltzera kondenaturik daudela diote biologoek. Koralezko arrezifeen etorkizuna beraz, jokoan dago.



Dieta orekatuaren adibide koloretsua

Eduardo Nycander arkitektoak Peruko Tambopata eskualdean lortu du irudiko argazki bikain hori. Charles Munn zientzilaria-riaren aginduz, oihane-ko arak bizi diren esku-aldeetan habi artifizialak egitera joan zen eta atsedean-ordueta egin zuten argazkia, ale eder horiek buztinezko amildegian zintzilik zeudela. Zalantzarik gabe, arak bazkatzen ari ziren bertan. Harriturik geratu

ziren zientzilaria- arak barazkijaleak izanik, bazkalordua bertan ematen zutela ikusi zuten. Oihanean, izan ere, barazkijale hauen sabela asetzeko lain aurki zezaketen. Landareen haziaz helikatzen badira ere, Tambopata-ko arek ez diote muzin egiten gozoa dirudien buztinezko mokaduari. Gerora frogatu ahal izan zuten, buztinak mesede handia egiten dio araren liseriketa-aparatuari, helikagaitzat dituzten zenbait landareen hazi pozoin- tsuaz babesten baititu. Buztinak, izan ere, pozoina neutralizatzen eta dieta orekatzen laguntzen diela frogatu ahal izan dute ikerlari-ek. Barazkiek ez dituzten mineralak ere, era xe- lebre horretan lortzen dituzte Peruko arek. Duda- rik gabe, kontutan har-

Landareen haziaz helikatzen badira ere, Tambopata-ko arek ez diote muzin egiten gozoa dirudien buztinezko mokaduari.



tzeko helikadura orekatuaren adibide garbia da.

Landsat satelitea erabiliz, Amazonian gertatzen diren neurrigabekeriak kontrolatzeko aukera izango dela uste da.

Sateliteak eta Amazoniako gehiegikeriak

Amazonia ekologiar- en ikurra izan da urte askotan. Kanpaina eta ekitaldi entzutetsuei esker, munduko paradisu koloretsu eta aberatsa arriskupean zegoela ohartu zen jende asko. Bigarren urratsa babes- programa bereziak abiaraztea izan da. Brasilian ezarriko den kontrol- zentru berria da horren adibidea. Landsat

satelitea erabiliz, Amazonian gertatzen diren neurrigabekeriak kontrolatzeko aukera izango dela uste da. SIVAM izenaz bataiatu duten programa honen xede nagusia Amazonian gertatzen den legez kanpo-ko baso-ustiapena geldiaraztea da. Horrez gain, suteei aurre egiten lagunduko du SIVAMek, 5.000 m² hartuko baititu bere kontrolpean.

